


# HAUSPEAKETA

SOLIDO DISOLBAEZINAREN DISOLBAGARRITASUN ERREAKZIA




HAUSPEATZE ERREAKZIOA (ioietatik solidora)

ORAIN ABIAPUNTUA IZANGO DA DISOLUZIO BAT → IOIAK DISOLUZIO BATEAN.  
ETA AZERTU BEHARKO DUGUNA IZANGO DA DISOLUZIOAN DAUDEN IOI BATZUEK HAUSPEAKIN BAT SORTUKO DUTEN ALA EZ SOLIDO DISOLBAEZIN BAT OSATZEN DUTELAKO.



Disoluzioan dauden ioi disolbaezinen kontzentrazioekin, BIDERKADURA IONIKOAREN,  $Q$ , balioa kalkulatu dugu, ez dakigulako ioien kontzentrazioak orekakoak diren ala ez. Eta gero,  $Q$ -k eta  $K_s$ -k aldaratuko ditugu.



DISOLUZIO MOTA	(Q) BIDERKADURA IONIKOAREN eta (K <sub>s</sub> ) DISOLBAGARRITASUN BIDERKADURAREN arteko KONPARAKETA
<p><b>ASEGABEA</b></p>	<p><math>Q &lt; K_{ps}</math> Ioiaren kontzentrazioa ez da nahikoa hauspeakina agertzeko, disoluzioa <b>ASEGABEA</b> delako.</p> <p>DISOLBAGARRITASUN OREKA EZ DA EMATEN DISOLUZIOAN solutua erabat disolbatuta dago, ioiak bakarrik daude.</p> <p>Fase likido bakarra ontzian HOMOGENEOA DA.</p>
<p><b>ASEA</b></p>	<p><math>Q = K_{ps}</math> <b>DISOLUZIOA ASEA DA.</b> Ioiaren kontzentrazioak disoluzio asearenak direnez muga-kontzentrazioak dira solutua hasteko hauspeatzen.</p> <p>Disolbagarritasun oreka ematen da:</p> $AmBn(s) \rightleftharpoons mA^{n+}(aq) + nB^{-m}(aq) \quad K_{ps} = [A^{n+}]^m [B^{-m}]^n$ <p>*Ioiaren kontzentrazioak orekan, disoluzioaren ioien kontzentrazio maximoak (tope) dira edo disoluzioaren ioien kontzentrazio minimoak solidoa hasteko hauspeatzen.</p> <p>*Errealitatean kontzentrazioek pittin bat handiagoak izan behar dute, hauspeakina ikusi ahal izateko.</p> <p><math>[A^{n+}]^m \geq \frac{K_s}{[B^{-m}]^n}</math> <math>A^{n+}</math> kontzentrazio minimoa <math>B^{-m}</math>-arekin <math>AmBn(s)</math> hasteko hauspeatzen.</p> <p><math>[B^{-m}]^n \geq \frac{K_s}{[A^{n+}]^m}</math> <math>B^{-m}</math> kontzentrazio minimoa <math>A^{n+}</math>-arekin <math>AmBn(s)</math> hasteko hauspeatzen.</p> <div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-top: 10px;"> <p><b>DISOLUZIO ASEA</b> oso kontzentratua da (solutua topean dago) baina oraindik hauspeakina ez da ikusten, homogenea da. (FASE likido BAKARRA) <b>GAINASEA</b> izan behar du hauspeakina ikusteko. (Fase solidoa eta likidoa)</p> </div>
<p><b>GAINASEA</b></p>	<p><math>Q &gt; K_{ps}</math> Ioiaren kontzentrazioak disoluzio asearenak baino handiagoak dira <b>DISOLUZIO GAINASEA</b> da. Ioi gehiegi daudenez, soberakina hauspeatuko da, disoluzioaren ioiak eta hauspeatzen den solidoa orekan egon arte.</p> <p>Disolbagarritasun oreka ematen da eta Le Chatelierren arabera, oreka berria lortzeko, <math>Q</math> txikituko da <math>K_s</math>-balioa lortu arte (T aldatu ez denez <math>K_{ps}</math>-ren balioa mantentzen da oreka berrian). Ioiaren kontzentrazioa gutxituko da <b>erreakzioa ezkererantz</b> desplazatuko delako (←), ondorioz hauspeakina agertuko da.</p> $AmBn(s) \rightleftharpoons mA^{n+}(aq) + nB^{-m}(aq)$ $\leftarrow$ <p>*Ontzian bi fase : solidoa → hauspeatu den solidoa eta likidoa → disoluzio asea.</p>

